

Literatur errezitaldia Foru Liburutegian

Bihar osteguna, martxoak 22, Bizkaiko Foru Liburutegiaren Hitzaldi Aretoan eta arratsaldeko 19:00etan, Juanra Madariaga idazlea egongo da "Eroriaren logika" poemarioaren inguruan hitz egiten

Saioa euskaraz izango da eta sarrera doakoa izango da, jesarleku kopurua ordean mugatua da. Literatura jardun honek, udaberriko Foru Liburutegiaren egitarauari hasera ematen dio.

Juan Ramon Madariaga Abaitua (Bilbao, 1962)

Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, non euskara-irakasle jardun zuen Euskara Sailean. Honako liburu hauen egilea da, besteak beste: Imentzioaren pergamuak (1989), Galera errepikatuak (1992), Elaien ausardia (1993), hirurak sarituak.

1997an Kritika Saria jaso zuen Argia sortzen den izartegia poema-liburuagatik, eta 2000an Euskaltzaindiaren saria Amodioa batzuetan bildumagatik. Bere poemetako batzuk han-hemengo antologietan ageri dira, hala nola "Milenio, Últimísima poesía española" eta "Orbanak" izenekoetan. Azken hori 2001era arteko ibilbide poetikoaren laburpen antzekoa da.

2000ko abenduan, Euskaltzaindiak antolaturiko Felipe Arrese Beitia saria eskuratu zuen Amodioa Batzuetan izeneko poema liburuarekin. 2001eko urrian Gasteizko Bassarai argitaletxearekin Física izeneko poemarioa argitaratzen du. Garai hartan ere, "Centro de Estudios Literarios y de Arte de Castilla y León" delakoak "Quinta Del 63" titulupean agerturiko liburuan bere poema batzuk irakur daitezke gaztelaniaz.

2002ko urtean Euskadi Sarirako finalisten artean agertzen da Amodioa Batzuetan izeneko poemarioarengatik. Izozmendiak poemarioa Susa argitaletxearekin atera zuen 2003ko udazkenean. 2009an Eroriaren Logika poemarioa argitaratu zuen, hurrengo urteko kritika saria jasoko zuena. Berria egunkarian egin ditu kolaborazioak eta beste hainbeste aldizkaritan (Pergola, Nora,...) eta egunkaritan plazaratu ditu bere aportazioak. Azken aldian Deia egunkarian idazten du igandero.

Recital de literatura en la Biblioteca Foral

Mañana jueves, 22 de marzo, en la Sala de Conferencias de la Biblioteca Foral de Bizkaia y a las 19:00 de la tarde, el escritor Juanra Madariaga hablará sobre su obra Eroriaren Logika.

Juan Ramon Madariaga Abaitua (Bilbao, 1962)

Licenciado en Filología Vasca por la Universidad de Deusto, donde trabajó como profesor en el Departamento de Euskera. Ha publicado libros como Imentzioaren pergamuak (Los pergaminos de la invención, 1989), Galera errepikatuak (Pérdidas repetidas, 1992), Elaien ausardia (La valentía de las golondrinas, 1993), títulos reconocidos con diferentes galardones.

En 1997 recibe el Premio de la Crítica por Argia sortzen den izartegia (El firmamento del que proviene la luz) y en el año 2000 el de la Academia de la Lengua Vasca por la obra Amodioa batzuetan (El amor a veces). Otros poemas han aparecido en antologías como Milenio. Ultimísima poesía española y Orbanak (Manchas), libro que resume su trayectoria hasta el año 2001.

Posteriormente publica en la editorial Bassarai el poemario en castellano Física y aparecen algunos de sus poemas traducidos en castellano en la obra Quinta Del 63 producida por el Centro de Estudios Literarios y de Arte de Castilla y León. En el año 2002 y gracias al poemario Amodioa batzuetan (El amor a veces) resulta finalista del Premio Euskadi-Euskadi Saria de literatura. En el otoño del 2003 publica Izozmendiak (Icebergs) con la editorial Susa.

Ha colaborado habitualmente en el periodico Berria y tambien lo hace actualmente en la separata literaria del periodico mensual Bilbao. Sus poemas han visto la luz también en otras publicaciones vascas y han sido traducidos al ingles, catalán, italiano, esloveno y castellano.